



sokan



Asier Agirresarobe ****** Mendizalea, 'thesi' liburuaren egilea**

Zenbateraino komeni da leku ezezagunak ezagutaraztea?

Adarrako ohiko bideetan aurki genitzake. Beraz, mendi jakin horien masifikazioa ekidin beharrekoa da, guztion nahia baita gure mendiak eta bere baitan gordetzen duten aberastasuna gure ondorengoei lagatzea, bere horretan mantentzea...

Ohiko bide eta mendietara soilik ez bagoaz, hauetan eragindako kalteaz gain, beste parajeak ere, beharbada ingurune ahulagoak gainera, izorratuko ditu jendearen etorrerak. Bai, hau izan daiteke desmasifikazioaren ondorioetako bat. Baina arestian aipatu moduan, inguruarekiko begirunea duen mendizale bakan batzuen etorrerak ez du kalte konponezinik eragiten, ezta ingurune ahulenetan ere. Bide batez, gainera, hainbat mendizale ohiko bideetatik at ateratzeak garai batean hain erabiliak izan ziren eta egun, zoritxarrez, galtzen ari diren mendi-bide zaharrak, berreskuratu edota sasi eta laharraren esku ez uztea dakar.

Halaber, bazter ezezagun horiek publiko zabalari ezagutarazteak ez du esan nahi bide

eroso eta garbietan ohituak ibili izan diren mendizale hauek ohiko bide eta mendietatik at ibilaraztea lortuko dugunik. Angulok bere liburuetan Euskal Herriko hainbat bazter ezutu argitara eman izanak ez du paraje hauen hondamena ekarri. Paraje berriak ezagutzea gogoko dituen mendizaleak, aldiz, asko eskertzen du, sustagarri gerta dakiokkeen informazio apur bat.

Leku ezezagun horiek argitara emateak, beraz, ez dakar gure hauen hondamena. Honek, baina, ez du esan nahi gure mendiak panel, errotulu eta pinturez josi behar ditugunik. Autoa utzi ohi den lekuan ematen den informazioarekin nahikoa dugu. Dena den, hurrengo eztabaidarako utziko dugu, aurrekoa bezain korapilatsua edo gehiago baita arazoa.



Ikusi ahal dena erakutsi behar da, besterik ez

Imanol Goikoetxea ****** Mendizalea eta kartografoa. Hainbat mendi libururen egilea**

Mendi zoko, ibilbide eta bazter ezkutak oso gutxi geratzen dira Euskal Herrian, baina jende askok ezagutzen ez dituenak, dexente dira. Aspaldiko eztabaida da: zer egin? Ezagutarazi, bai ala ez?

etidantik, publiko handiari euskal mendietako txoko zoragarriak erakustearen aldekoa izan naiz. Mendi —eta, ondorioz, Euskal Herria— ezagutzea gure lurra maitatzeko modu onena dela eta, era berean, berekiko errespetua sortzeko tresna ederra. Bestalde, edozein toki ezagutzeko eta horretaz gozatzeko denon eskubidea ere argi utzi nahi nuke; ez naiz ni debekatzailerik izango.

Baina horren gaineratik beste eskubide bat dagoela adierazi behar da, eskubide garrantzitsuagoa, nire ustez: leku horren eskubidea. Bai, irakurleok, lekuek ere beren eskubidea dute edo, ez edukitezkotan, guk luzatu beharko diegu. Era berean, mendizale langile eta esplora-

tzailearen eskubidea ere —horrelako lekuak bilatu eta aurkitzeko eskubidea— aldarrikatu behar da. Beraz, bi eskubide edo ezaugarri abstraktu ditugu gai honetan: lekuenak eta mendizaleenak.

Egunkari, irratia eta beste komunikabideetan gero eta gehiago ugaritzen ari dira mendiari buruzko saiok (ikus mendiari buruzkoak esan dudala, eta ez mendizalearenak). Entzuleak mass medietatik isurtzen den informazioa jasotzen du, noski, eta hor azaltzen diren leku horiek, lehenago edo geroago, bisitariak jasoko dituzte.

A, zein gauza ederra, zer-nolako satisfakzioa, guk deskubritu



dugun leku miresgarri baten berri eman eta gero handik bizpahiru urtera zaborez eta jendez gainezka ikustea! Deontologiarik balego gaitonon, sakrilegiarik handiena hau izango litzatekeela ziur nago.

Horregatik, jendeari eskatzen duena eta ulertzeko gai dena eskaini behar zaio: Larrunarriko igoera, Pagasarriko bide alternatiboren bat, Badaiaiko zeharkaldia, Zuparroiko ibilbidea edo Mondarraingo eskalada eskola. Inoiz ez ditugu zabalduko, komunikabideen bidez, balio ekologiko handia duten haran txikiak (nahiz eta zoragarriak izan), Nafarroako erdialdeko zintzur ba-

kartia, kobazulo erraz eta estetiko baten kokapena edo horrelako edozein eredu.

Bai, noski, gure lagunek horren berri izango dute, eta benetan mendizale giroan dihardutenek leku hori ezagutuko dute azkenean. Elitismoa? Egoismoa? Agian, baina perretxikozale baten ez dizu inoiz aitortuko non jasotzen dituen urriko ilbetean onto zuri eder horiek. Eta perretxikozaleen egoera, bai, ulertzen duguzte. Beste muturrean txoko liluragarri bat aurkitu duen mendizalea dago: (dirudienez) bere sekretua plazaratzeko obligazioa du. Zorionez, nik ez dut inongo beharrik. Hori bai, nahi duzuenan, kafetxo baten aurrean edo tontor batean, nire leku sekretuak kontatuko dizkizuet. Eta zuek zuenak niri, noski.